



Milurtekoko garapen
helburuak,
aldaketarako tresna edo
garapen gaingabetua?



ETXEKIZITZA ETA GIZARTE
GAETAKO SAIALA
Gizarte Garapena, Sektoreko Politika
Garapen, Lanpostuaren eta Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
ASUNTOS SOCIALES
Viceministerio de Asuntos Sociales
Dirección de Cooperación al Desarrollo



Bizkaiko Foru Alkandua
Diputación Foral de Bizkaia



Argitalpen hau Milurtekoko Garapen Helburuei buruzko 9 komikiz osatutako bilduma baten zati da. Gai honen inguruan sakondu nahi izanez gero bestelako material osagarria ere badugu (posterrak, mandalak, sakontzeko koadernoak...) eskaria gure bulegotan zein gure web orrian egin dezakezu.

Hezkuntza baliabideak ALBOAN

...

4. Hurren heriotza-tasa murriztea.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2007)
5. Amen heriotza-tasa murriztea.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2007)
6. HIESa justiziaren ikuspegitik.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2008)
7. Ura: ondasun publikoa.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2008)
8. Garapenerako munduko elkarte bat sustatzea.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2008)
9. Milurtekoko garapen helburuak,
aldaketarako tresna edo garapen gaingabetua? (2008)

Laguntzailea:



Egileak: Abarrots, Roger, Santi Orue, Gonzalo San Vicente,
Gol, Carmelo Manresa eta Nono Kadáver

Argitaratzaileak: ALBOAN

Itzulpena: Elhuyar

Lege-Zenbakia: BI-1196-08

ISBN: 978-84-612-2596-5

Azalako diseinu: Marra, S.L.

Inprimaketa: Lankopi S.A.

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, beti ere helburu komertzialik ez badu eta iturburu aipatzen baldin bada.

www.alboan.org

Iruñea

Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Faxe: 948 264 308
alboanna@alboan.org


Bilbo

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo
Tel.: 944 151 135 • Faxe: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

Donostia

Erronda kalea, 7, 4. I • 20001 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Faxe: 943 320 267
alboangi@alboan.org

MILURTEKO BERRIKO GARAPEN-HELBURUAK GARA, JATOR ASKOAK! GURI ESKER, ASKOZ ERE LEKU HOBEA IZANGO DA MUNDUAN 2015EAN. MUNDUKO NAZIO ETA ERAKUNDE GARRANTZITSUENEK SORTU GINTUZTEN ZORTZI HELBURUOK, 2000. URTEAN.



ZEIN DIREN HELBURU HORIEK?


- | | |
|---|--|
| ① MUTURREKO POBREZIA ETA GOSEA DESAGERRARAZTEA. | ⑤ AMEN OSASUNA HOBETZEA. |
| ② GUZTIENTZAKO LEHEN HEZKUNTZA ERDIESTEIA. | ⑥ HIESARI, PALUDISMOARI ETA BESTE GAIXOTASUN BATZUEI AURRE EGITEA. |
| ③ GENEROEN ARTEKO BERDINTASUNA ETA EMAKUMEEN AUTONOMIA SUSTATZEA. | ⑦ INGURUMENAREN JASANGARRITASUNA BERMATZEA. |
| ④ HAURREN HERIOTZA-TASA MURRIZTEA. | ⑧ GARAPENAREN ALDEKO MUNDU-LANKIDETZA SUSTATZEA. |



HONA HEMEN ZENBAIT HELMUGA, EPE ETA EKINTZA-PLAN BAT ESKUBIDE EKONOMIKO ETA SOZIALAK MUNDU OSOAN APLIKA DAITEZEN.




KRITIKAREN AZTIA NAUZUE. ZUR ETA LUR GERATU ZARETENEZ...



...KRITIKA KONSTRUKTIBOAREN ZUREZKO ZAZPI LAPITZAK AURKEZTUKO DIZKIZUET.



ZUEI BURUZ DUEN IKUSPEGI POSITIBOA ETA NEGATIBOA AZALDUKO DU HAIETAKO BAKOITZAK.





90EKO HAMARKADAN, MUNDU-GAILUR MORDOA ANTOLATU ZIREN HAMAR URTEZ. BERRIKETA UGARI, BAINA BATERE ALDAKETARIK EZ. 2000. URTEAN, AZKENIK, BENETAKO KONPROMISOAK HARTU ZITUZTEN GOBERNUEK MGHEKIKO.



HAU DUK, HAU!

HONDARRAK ERE EZ DIZKIGUTE UZTEN ETA!

MUNDUKO 26 GIZAKIRIK JATORRENEN GOI-BILERA.



MAHAI GAINEAN DITUGU MILURTEKOKO GARAPEN HELBURUAK. HELBURU ZEHATZAK DIRA. ETA BETE DITZATEN ESKATU BEHAR DIEGU GOBERNUEI. EZ DA LEHEN BEZALA...

HONA HEMEN ZER PROPOSATZEN DUGUN: ERRETIROA, 80 URTEREKIN. BAINA LEHENAGO HILTZEN BAZARETE, NOLA NAHI DUZUE HORI BETETZEA?

JAR ZAITEZTE GURE LEKUAN.



BADA, ALDE PARETIK!

SEGAPOTO HALAKOA!

ROGER 2007

BAINA AURREKO GAILURRETAKOAK BAINO ESKASAGOAK DIRA HELBURUAK. LEHEN, POBREZIA KENTZEAZ HITZ EGITEN ZEN; ORAIN, MUTURREKO POBREZIA EZABATZEAZ.*



ZUEK POBREAK ZARETE; GU, ZERTXOBAIT GUTXIAGO... BAINA, MESEDEZ ETA BATEZ ERE, MUTURREKO JARRERARIK EZ!

ADITU?

BESTERIK EZ DIZUEGU ESKATZEN?

DOM PÉRIGNON

ESNE-HAUTSA, ZEREALIK GABE.

2015 EAN, HELBURUAK BETETZEKO HITZEMAN DUTENAK EZ DIRA JADA GOBERNUBURU IZANGO. EZ DIRA, BADA, ARDURA GAINETIK KENDU NAHIAN ARITUKO?



ZORTZI URTEAN, AGINDUTAKO GUZTIA BETE GABE UTZI DUT, ETA EZ DUT INOREN KONFIANTZARIK GALDU!

GERORA ERE JENDEAK ZUREGAN JARRIKO AHAL DITU BERE ITXAROPEN XELEBRE HORIEK!

ETA ZUK, URTE ASKOAN JARRAI DEZAZULA JENDEARI KASURIK ERE EGIN GABE, INOREN ITXAROPENAK ZAPUZTEKO BELDURRIK GABE!

* EGUNEAN DOLAR BATEKIN BAINO GUTXIAGOREKIN BIZITZEA.



HELBURU JAKIN BATZUK AURKEZTEN DIZKIGUTE, LEHENBIZIKOZ, MGHEK, BAITA HORIEK IRISTEKO EPE BAT ERE: 2015. URTEA.

MGH BAT
ABABOR
ALDERA!

ESKERRAK! JANARIA,
URA, HEZKUNTZA,
ETXEBIZITZA...




SANT IORUE / 07

BAINA HELBURU HORIEN KALITATEAZ EZ DA HITZ EGITEN. LARDERIAZKO GOBERNU BATEK BETE LITZAKE LARDERIAZKO IZATEARI UTZI GABE.

TIRA, TIRA! JANARIA, URA,
HEZKUNTZA... EZ ZENUTEN NAHI,
BADA? ALA DOHAINIK ZELAKOAN
ZEUNDETEN?





MGHETAKO ASMOAK ONAK DIRA, ZALANTZARIK GABE: POBREZIA MURRIZTEA, GENERO-BERDINTASUNA SUSTATZEA...
LABURBILDUZ: JENDE ASKOREN BIZIMODUA HOBETZEA.




GARAPEN-ARAZOAK ZURE NAZIOAN? GOSETEAK? DESBERDINTASUNA?

MGH!

ORAIN, MERKE ASKO!

MUTURREKO POBREZIA, %50 GUTXIAGO! GARBITU ZURE IRUDIA! GARBITU ZURE KONTZIENTZIA!



OINARRI-OINARRIZKOAK DIRA HELBURUAK, ETA, HORIEN AZPITIK, MUTURREKO BIZI-KONDIZIOEZ MINTZATU BEHAR. HORI OTE GARAPENA?

IZUGARRIA DA! LEHEN, ZABORRETAN BILATU BEHAR IZATEN NUEN JANARIA!



ORAIN, ORDEA, EGUNEAN BI LARANJA-AZAL BIDALTZEN DIZKIDATE ETXERA! MILA ESKER, MGH!

DEITU ORAINTXE, ETA AIZTO-SORTA EDERRA BIDALIKO DIZUGU!



AZKENIK, BADA MUNDU OSOAN ADOSTASUNIK ETA KONPROMISO
TINKORIK BEHARTSUENEN GARAPENAZ.

IUUUUUFFFFFI!



BAINA HELBURU HORIEK BETEKO BALIRA ERE, 2000. URTEAN
ZEGOEN POBRE-KOPURUA ERDIRA BAKARRIK MURRIZTUKO
LITZATEKE.

IUUUUUFFFFFI!



GON^o



MILURTEKO GARAPEN HELBURUEKIN, GOBERNUEK HITZEMAN DUTE JENDE GUZTIAK IZANGO DUELA LEHEN HEZKUNTZA, GOSETEA MURRIZTUKO EGINGO DUTELA...

AIZU, ALI;
GAUR, ZER
TOKATZEN
DA?




GAZTA-
OGITARTEKOA
ETA COCA COLA.

Gol 07



BAINA GOBERNUEK HONENGATIK HARTZEN DITUZTEN KONPROMISOAK: EZEGONKORTASUN GUNEEK KEZKATU EGITEN DITUZTELAKO. ETA POBREZIAK SORTU EGITEN DITU GUNE HORIEK. INBERTITZEKO ETA NEGOZIO BIKAINAK EGITEKO INGURUNE LASAIA BEHAR DUTELAKO NAHI DUTE GARAPENA.





MGHAK 2015 ERAKO BETEKO DITUZTELA HITZEMAN DUTE GOBERNUK. AGINDU EGIN DUTE, ETA BETE BEHARRA DAUKATE.

2015eko URTARRILA

ZER MODUZ GABILTZA?

JASANGARRITASUNARENA BEGIRATU DUT, BAINA, GAIXOTASUNAK, EZTA BEGIRATU ERE.

NIK, BERRIZ, ESNA EMAN DUT GAU OSOA GENERO-BERDINTASUNAREN KONTUAREKIN.

AJJJ!
HORI ERE SARTZEN ZEN, ALA?

GOBERNU-AZTERKETA.



MGHEI LAGUNTZEA GOBERNUEN INTERESAK BABESTE A ERRE BADA, NOLABAIT. HELBURU NAGUSITIK DESBIDERATU EGITEN GAITUZTE; HOBE DA GIZA ESKUBIDEEN ALDE JARDUTEA.

TORI APUR BATZUK, ETA BAKEA EMAN...

PLOF

ETA ZUEK, HARTU TOMATEOK!

PIPERTXO BAT EMATEN BADIDAZUE, GAZPATXOA EGINO DUT!





OSO ITXURA ONA DAUKATE MGHEK: AMEN OSASUNA HOBETU, INGURUMENAREN JASANGARRITASUNA BERMATU... ARAZO NAGUSIEI EKITEN DIETE.

GIZATERIARI SUFRIMENDU HANDIA ERASITEN DIOTEN ZENBAIT ARAZO, DENA DEN, KANPOAN UTZI DITUZTE!

ADIBIDEZ, EZ DUTE ESATEN RAMÓN GARCÍARI BERRIRO ERE URTE ZAHARREKO KANPAIAK EMATEN EZ DIOTELA UTZIKO!

EZ TA FERNANDO ALONSORI TELEBISTAKO IRAGARKI BEHAGOTAN AZALTZEA DEBEKATUKO DIOTENIK ERE!



C.MANRESA



BAINA OSO OBJEKTIBOAK DIRA, OSO MATERIALAK... ZER GERTATZEN DA, BAINA, IMMATERIALEKIN? DUINTASUNA, ASKATASUNA... HORIEK ERE HELBURU IZAN BEHAR LUKETE.

JAKINA, PREMIA IMMATERIALAK ERE AINTZAT HARTZEN DITUGU POLITIKARIOK.

HORREGATIK, PROPOSATU BEHAR DUGU HERRIALDE GUZTIAN EGOTEA TXUTXU-MUTXU SAIOAK TELEBISTAN.

IKUSI ZENUEN ATZO 'PORRUSALDA BEROA' SAIOA

BAI. IZUGARRIAK IZAN ZIREN KLAUDIO LANDAREN ADIERAZPENAK!





MGHEK EZ DITUZTE GIZA ESKUBIDEAK AIPATZEN, BAINA HAIK GAUZATZEKO MODU BAT IZAN DAITEZKE.

BENO, BADA..., JENDE HONEN MUTURREKO POBREZIA AKABATU DEZAGUN! KARGATU, APUNTATU ETA...

BARKATU, GORENTASUNA, BAINA EZ DUT USTE ONARTUKO DUTENIK POBREA SARRASKITZEA POBREZIA KENTZEKO METODO BALIOZKOTZAT.

HALA USTE DUZU?



BAINA MGHAK EZ DIRA LEGEAK; MORALAREN ALDETIK BAKARRIK DIRA LOTESLEAK. BETETZEN EZ BADIRA, EZ DA EZER GERTATZEN.

BAINA, MINISTRO JAUNA; USTE DUZU HELBURUAK BETE DITZAKEGULA?

PUFFF..., EZ DAKIT. BAINA EZ KEZKATU; LORTZEN EZ BADUGU ERE, EZ DIGUTE ISUNIK JARRIKO... EZ DA EZER GERTATZEN.

EZ DELA EZER GERTATZEN? HALA USTE DUZU?





OSO ZORPETUTA DAUDEN HERRIALDEETAKO KANPO-ZORRA MURRIZTEKO KONPROMISOA DUTE MGHEK. ERABATEKO POBREZIAN UZTEN DU HERRI HORIETAKO JENDEA ZORRA ORDAINDU BEHARRAK.



ETA JENDE HAU?


ZURE KANPO-ZORRARENA
NEGOZIATZERA ETORRI
DIRA.

AH... HORRELA
IBILTZEN DIRA HAN,
EZTA? HANGO JANZKI
TIPIKOEKIN ETORRI
DIRA, BERAZ? EDO
ZER?

BAI, HANGO
JANZKERA
TIPIKOA DA..., GURI
ORDAINTZEN HASI
ZIRENETIK.



BIDEGABEKO ZORRA DA, ETA ZORPETU ZIREN GOBERNARIAK JADA EZ DAUDE AGINTEAN. DIRUA MAILEGUAN EMAN ZUTENEK, BERRIZ, BAZEKITEN HARTZAILEEK EZIN ZUTELA ORDAINDU, ETA EZ DIOTE ESKATZEN HARTU ZUENARI.



ONGI ETORRI,
MAIESTATE.
LASTIMA DA
ZURE
HERRIALDEAN
IRAUTZA EGIN
ETA ZU
ASINTETIK
KENDU IZANA:

ESKERRIK
ASKO.

MILA ESKER,
BABESA
EMATEAGATIK.
EZ KEZKATU
NIREGATIK.

...KEZKATU GOBERNU BERRIAGATIK,
EZ DAKIT-ETA NOLA ITZULIKO DUTEN
NIRI MAILEGATU ZIDATEN
DIRU GUZTIA.

FURILLO

BAINA, BIEN BITARTEAN... 30.000 HAUR HILTZEN DIRA EGUNERO,
ETA MINUTUKO EMAKUME BAT HILTZEN DA ERDITZEAN.





MGHAK EZ DIRA GURE AZKEN HELBURUA. BAINA BALIAGARRI IZAN DAKIZKIGUKE. HAI EI ESKER, ETA BETETZEN BADIRA, BIZITZA ASKO SALBATUKO DIRA, ETA JENDE GEHIAGOK IZANGO DU HOBETO BIZITZEKO AUKERA 2015ean.



b

©Nono Kadáver • 2007